


2023an EAEko antzerkiaren programazioan eta sorkuntzan emakumeek eta gizonek izandako presentziaren eta parte hartzearen azterketa



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Aurkibidea

Aurkibidea	2
Aurkezpena	5
1. Metodologia	6
2. Programazioaren analisia	9
2.1. Interpretazioaren analisia	10
2.1.1. Antzezleak	11
2.1.2. Antzerki-taldeen osaera	12
2.1.3. Prezioa eta doakotasun-datuak	13
2.1.4. Asteko eguna	17
2.1.5. Orduategia	18
2.1.6. Hizkuntza	19
2.1.7. Lurralde Historikoa	20
2.1.8. Barruko/kanpoko esparrua	21
2.1.9. Esparruaren edukiera	22
2.1.10. Antzerki-generoa	23
2.1.11. Publiko-mota	24
2.1.12. Talde-mota	25
2.1.13. Antzerki-taldearen jatorria	26

2.2. Egiletzaren analisia	27
2.2.1. Egiletza	28
2.2.2. Egileen osaera.....	29
2.2.3. Prezioa eta doakotasun-datuak.....	30
2.2.4. Asteko eguna	34
2.2.5. Ordutegia	35
2.2.6. Hizkuntza.....	36
2.2.7. Lurralde Historikoa.....	37
2.2.8. Kanpoko/barruko esparrua	38
2.2.9. Esparruaren edukiera.....	39
2.2.10. Antzerki-generoa	40
2.2.11. Publiko-mota	41
2.2.12. Talde-mota	42
2.2.13. Egiletzaren jatorria.....	43
2.3. Zuzendaritzaren analisia	44
2.3.1. Antzerki-emanaldien zuzendaritza	45
2.3.2. Zuzendaritzaren osaera.....	46
2.3.3. Prezioa eta doakotasun-datuak.....	47
2.3.4. Asteko eguna	51
2.3.5. Ordutegia	52
2.3.6. Hizkuntza.....	53
2.3.7. Lurralde Historikoa.....	54
2.3.8. Barruko/kanpoko esparrua.....	55
2.3.9. Esparruaren edukiera.....	56

2.3.10.	Antzerki-generoa	57
2.3.11.	Publiko-mota	58
2.3.12.	Talde-mota	59
2.3.13.	Zuzendaritzaren jatorria.....	60
3.	Sorkuntzaren analisia	61
3.1.	Interpretazioaren analisia	62
3.1.1.	Antzezleak	63
3.1.2.	Antzerki-taldeen osaera	64
3.1.3.	Publiko-mota	65
3.1.4.	Hizkuntza	66
3.2.	Egiletzaren analisia	67
3.2.1.	Egiletza	68
3.2.2.	Egiletzaren osaera.....	69
3.2.3.	Publiko-mota	70
3.2.4.	Hizkuntza	71
3.3.	Zuzendaritzaren analisia	72
3.3.1.	Zuzendaritza	73
3.3.2.	Zuzendaritzaren osaera.....	74
3.3.3.	Publiko-mota	75
3.3.4.	Hizkuntza	76
4.	Alderaketak.....	77
4.1.	Aldeak emanaldien eta sorkuntzen artean.....	78
4.2.	Emanaldien bilakaera: 2017 eta 2023	79
4.3.	Sorkuntzen bilakaera: 2017 eta 2023.....	80

Aurkezpena

2023an EAEko antzerkiaren programazioan eta sorkuntzan emakumek eta gizonek izandako presentziaren eta partaidetzaren azterketa

Jarrian azaltzen diren datuek EAEko antzerkiaren eremuaren errealitatea erakusten dute, emakumek eta gizonek bertan duten presentzia eta partaidetza kontuan hartuta.

Azterlana bi ataletan banatu da: batetik, antzerki-emanaldiak eta, bestetik, antzezlanen sorkuntza.

1. Metodologia

Unibertsoa, erabilitako laginak, ikuspegia eta glosarioa

UNIBERTSOA ETA LAGINA

www.kulturklik.euskadi.eus plataforma da azterlan honetarako erabilitako informazio-iturria. Zehazki, 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean EAEn egindako antzerki-jarduerak aztertu dira, bai eta urte horretan bertan EAEn kokatutako taldeek estreinatutako antzezlanak ere, web-plataforma horretan daudenak.

	UNIBERTSOA	LAGINA
ANTZERKI EMANALDIAK	4.726	362 emanaldi (% 95 NC \pm % 4,95 ME)
ANTZERKI SORKUNTZA	120	Unibertso osoa: 120 antzezlan

Analisia garatzeko bi lagin hauekin lan egin da: antzerki-emanaldiak (% 95eko konfiantza-maila du, \pm % 4,95eko errore-marjinarekin) eta antzerki-sorkuntzaren unibertso osoa, EAEn kokatutako taldeei dagokienez.

Antzerkiko jardueren kasuan, hilabeteka geruzatutako ausazko lagin simple bat erabili da.

ARGIBIDE METODOLOGIKOAK ETA GLOSARIOA

LAGINAREN TAMAINA (N): analisi-aldagai batzuen informazioa ez dago eskuragarri lagin osoan; beraz, N balioa aldatu egiten da analisisian zehar.

TALDEAK: kontzeptuaren barruan sartzen dira antzerki-jardueran parte hartzen duten pertsona guztiak, banakakoak zein taldekoak izan. Hau da azterlanaren segmentazioaren aldagai nagusia, eta kategoria hauekin osatzen da: emakumeak bakarrik, gizonak bakarrik eta mistoak.

ANTZEZLEAK: antzezpenean edo antzerki-emanaldian jarduten duten pertsonen zenbaketa da.

ZUZENDARITZA: antzezlanaren edo antzezpenaren eszenaratzea zuzentzen duen pertsona edo pertsona-taldea.

EGILETZA: antzeztutako obren sortzaileak dira, bakarka zein taldean sortuak izan.

PREZIOA: batez besteko prezioa eta prezioaren mediana kalkulatzeko, ordainpeko jarduerak bakarrik hartu dira kontuan, hau da, doako antzezpenak kanpo utzi dira.

ASTEKO EGUNA: astegunetan, astelehenetik ostegunera, eta asteburuetan, ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan.

ORDUTEGIA: goizez 8:00etatik 15:00etara, arratsaldez 15:01etik 20:59ra eta gauez 21:00etatik aurrera egindako antzerki-emanaldiak hartu dira kontuan.

2. Programazioaren analisia

Atal honetan 2023an EAEn programatutako antzerki-emanaldiak aztertzen dira.

2. Programazioaren analisia

2.1. Interpretazioaren analisia

2.2. Egiletzaren analisia

2.3. Zuzendaritzaren analisia

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa

2.1.1. Antzezleak

2.1.1. Emakumeen eta gizonen presentzia (N 1491*)

% 46,7

EMAKUMEAK

% 53,3

GIZONAK

Antzerkiaren arloan, emakumeen presentzia EAEko agertokietan gizonena baino txikiagoa da, ia 6 puntuko aldearekin.


* Hautatutako laginean aztertutako pertsonen kopurua

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa

2.1.2. Antzerki-taldeen osaera


2.1.2.1. Antzerki-taldeen osaera
(N 362)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



2.1.2.2. Antzerki-talde mistoen osaera
(N 187)

■ Emakumeak guztira ■ Gizonak guztira




2023an EAEn aritu diren antzerki-taldeen erdia baino gehiago (% 52) mistoak dira, eta taldeen osaeran emakumeak baino gehiago dira gizonak. 10 taldetik 3 gizonek bakarrik osatzen dituzte, eta 10etik 2 emakumeek.

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa


2.1.3. Prezioa eta doakotasun-datuak

2.1.3.1. Batez besteko prezioa eta mediana

2.3.1.1. Antzerki-emanaldien batez besteko prezioa taldearen osakeraren arabera (N 237)



2.3.1.2. Antzerki-emanaldien prezioaren mediana taldearen osakeraren arabera (N 237)




Emakumeen taldeek egiten dituzten antzerki-emanaldietarako sarrerak 2 € merkeagoak dira gutxi gorabehera, gizonak bakarrik aritzen diren antzerki-emanaldietarako sarrerak baino.


2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa

2.1.3.2. Batez besteko prezioa eta publiko-mota

2.1.3.2.1. Emanaldien batez besteko prezioa taldearen osaeraren arabera (N 237)



2.1.3.2.2. Emanaldien prezioaren mediana publiko motaren arabera (N 237)




Helduei zuzendutako antzerkian dago prezio-alderik handiena gizonen eta emakumeen emanaldien artean (2 euro); haur-antzerkiaren kasuan, prezioen arteko aldeak desagertu egiten dira (mediana) edo euro 1 baino gutxiagora murrizten dira (batez bestekoa).

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa


2.1.3.3. Doako emanaldiak

2.1.3.3.1 Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 362)



Doako emanaldien ehunekoa ia berdina da gizonak bakarrik eta emakumeak bakarrik osatutako taldeetan.

2.1.3.3.2. Banaketa doakotasunaren arabera (N362)




Ordainpeko emanaldi gehienak talde mistoek antzetzutakoak dira.

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa


2.1.3.4. Doako emanaldiak eta publiko-motak

2.1.3.4.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 125)



Helduentzako doako emanaldiak ohi denez **emakumeez soilik** osatutako taldeenak dira; gizonek, berriz, modu ekitatiboagoan antzetzen dute doan publiko guztientzat.

2.1.3.4.2. Banaketa publiko-motaren arabera (N 125)




Gizonek antzetzutako haur-antzerkian doakotasuna handiagoa da **emakume-taldeena baino**; helduentzako emanaldien kasuan, berriz, orekatu egiten da haien presentzia.

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa


2.1.4. Asteko eguna

2.1.4.1 Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 362)



Talde mistoek, emakumeenak bakarrik eta gizonenak bakarrik, **asteburuan egiten dute lan.**

2.1.4.2. Banaketa asteko egunaren arabera (N 362)




Emakumeek eta gizonen proportzioan parte hartzen dute antzerki-emanaldietan asteko egunaren arabera, banaketa orokorrari dagokionez.

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa


2.1.5. Orduategia

2.1.5.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 362)



Antzerki-emanaldien ordu-banaketa **nahiko antzekoa** da talde mistoentzat, gizonentzat eta emakumeentzat, eta ia emanaldi guztiak arratsaldeko orduategian egiten dira. Gizonek bakarrik antzetzen dituzten emanaldien % 10 21:00etatik aurrera izaten da, emakumeen ia bikoitza (% 5,4).

2.1.5.2. Banaketa orduategiaren arabera (N 362)




Gizonek soilik osatutako taldeen presentzia da nagusi **gaueko emanaldietan**. Eta nabarmentzekoa da emakumeen presentzia eskasa goizeko orduategian.

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa


2.1.6. Hizkuntza

2.1.6.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 357)



Hizkuntzaren sexuen araberako banaketari dagokionez, euskarak presentzia handiagoa du **emakumeen presentzia eta presentzia mistoa duten antzerki-emanaldietan**, 8 puntu gehiagorekin gizonek bakarrik parte hartzen duten antzezpenekin alderatuta.

2.1.6.2. Banaketa hizkuntzaren arabera (N 357)




Gizonek presentzia txikiagoa dute euskaraz antzeztutako emanaldietan, eta **hizkuntzarik gabeko emanaldietan soilik handitzen da beren presentzia**. Jarduera hori txikiagoa izaten da emakumeek soilik osatutako taldeei dagokienez.

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa


2.1.7. Lurralde Historikoa

2.1.7.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 362)



Emakume eta gizon **gehienak Bizkaian** aritzen dira, eta, ondoren, Gipuzkoan eta Araban.

2.1.7.2. Banaketa lurralde historikoaren arabera (N 362)




Lurralde historiko bakoitzaren barruan, emakumeen eta gizonen **presentzia nahiko proportzionala** da.

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa


2.1.8. Barruko/kanpoko esparrua

2.1.8.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 362)



Barruko esparrua da antzerkirako espazio klasikoa. Hala ere, **gizonez bakarrik osatutako taldeak** dira **estalpean gutxien jarduten dutenak**, eta soilik emakumeenak gehien jarduten dutenak.

2.1.8.2. Banaketa esparru-motaren arabera (N 362)




Kanpoko esparruetan antzeztutako emanaldien banaketa ikusita, **emakumez osatutako taldeek** dagokiena baino **presentzia txikiagoa** dute, eta **gizonez osatutakoek presentzia handiagoa**.

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa


2.1.9. Esparruaren edukiera

2.1.9.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 292)



Talde mistoek esparru handietan jardun ohi dute. Sexu bakarreko taldeetan, ordea, aldeak ikusten ditugu: soilik gizonzkoen taldeen % 34 esparru handietan aritzen dira, eta emakumeenak, berriz, % 25.

2.1.9.2. Banaketa esparruaren edukieraren arabera (N 292)



500 pertsonatik gorako edukiera duten esparru handiek emakume-taldeen emanaldi gutxiago eta talde mistoen emanaldi gehiago hartzen dituzte.

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa


2.1.10. Antzerki-generoa

2.1.10.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 362)

	Mistoa	Gizonak bakarrik	Emakumeak bakarrik
Zirkua	% 16,04	% 15,84	% 9,46
Magia		% 8,91	% 1,35
Bakarrizketak	% 0,53	% 12,87	% 14,86
Musikala	% 20,32	% 7,92	% 8,11
Beste batzuk	% 4,28	% 2,97	% 1,35
Kaleko antzerkia	% 1,60	% 8,91	% 1,35
Testu antzerkia	% 55,61	% 42,57	% 63,51
Antzerki lirikoa	% 1,60		

Talde mistoak (% 56), gizonek osatutakoak (% 43) eta, batez ere, soilik emakumeek osatutakoak (% 64) testu-antzerkian aritzen dira. Gizonen emanaldiak banatuagoak daude mota guztietako generoetan.

2.1.10.2. Banaketa antzerki-generoaren arabera (N 362)




Azpitarratzekoa da emakumeen presentzia bakarrizketetan (emanaldien ia erdiak) eta testu-antzerkian (banaketa orokorrean baino presentzia zerbait handiagoa). Beste genero batzuk, esaterako magia eta kaleko antzerkia maskulinoak dira argi eta garbi; zirkuan eta beste batzuetan ere oso presente daude gizonak edo talde mistoak.

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa


2.1.11. Publiko-mota

2.1.11.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 362)



Talde-mota guztiek **batez ere helduentzat antzezten dute, baina gehien antzezten dutenak emakumeek bakarrik osatutako taldek dira.**

2.1.11.2. Banaketa publiko-motaren arabera (N 362)




Talde **mistoak** batez ere haurrei zuzendutako emanaldietan daude; gizonak emakumeak baino pixka bat gehiago dira.

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa


2.1.12. Talde-mota

2.1.12.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 362)



Emakumeek bakarrik osatutako taldeek **taldean eta bikotean antzezen dute gehienbat** (10 emanalditik 6tan).

2.1.12.2. Banaketa talde-motaren arabera (N 362)




Bakarka aritzen diren antzezleak gizonezkoak dira gehienbat, banakako emanaldi guztien ia bi heren.

2.1. Programazioaren analisia: Interpretazioa

2.1.13. Antzerki-taldearen jatorria


2.1.13.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 358)

■ EAE ■ Estatuko gainerako erkidegoetakoak ■ Atzerritarrak



2.1.13.2. Banaketa jatorriaren arabera (N 358)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



Alde nabariak daude antzerki-taldeetako kideen sexuaren banaketan, jatorriaren arabera: talde mistoak EAE n sortuak dira gehienbat, gainerako talde-moten aldean, eta gizonak bakarrik dituzten taldeak atzerrian sortuak dira gehienbat.

2. Programazioaren analisia

2.1. Interpretazioaren analisia

2.2. Egiletzaren analisia

2.3. Zuzendaritzaren analisia

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza

| 2.2.1. Egiletza

2.2.1. Emakumeen eta gizonen presentzia (N 369*)

% 30,6

EMAKUMEAK

% 69,4

GIZONAK

EAEko agertokietan antzeztutako antzerki-emanaldien egile gehienak gizonak dira, eta ehuneko 39 puntuko aldea dute emakume egileekin alderatuta.


* Hautatutako laginean aztertutako pertsonen kopurua

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza

2.2.2. Egileen osaera


2.2.2.1. Egileen osaera
(N 242)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



2.2.2.2. Egileen osaera antzezlan klasikorik gabe
(N 222)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



EAEEn antzeztutako obren egileen (banakakoak edo kolektiboak) **bi herenak gizonak dira**. 10etik 2 bakarrik dira emakumeak.

Egileen obren % 8 baino ez dira 2000. urtea baino lehenagokoak; ehuneko horretan, antzerki klasiko handiak sartzen dira, eta horien egileak gizonak dira.


2.2. Programazioaren analisia: Egiletza

2.2.3. Prezioa eta doakotasun-datuak

2.2.3.1. Batez besteko prezioa eta mediana


2.2.3.1.1. Antzerki-emanaldien batez besteko prezioa taldearen osakeraren arabera (N 193)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



2.2.3.1.2. Antzerki-emanaldien prezioaren mediana (N 193)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik




Hamar emanalditik zortzi ordainpekoak dira. **Emakumeek sortutako antzezlanen emanaldietarako sarrerek 6 € merkeagoak** dira gizonek sortutakoen aldean, horiek baitira preziorik handiena dutenak.

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza


2.2.3.2. Batez besteko prezioa eta mediana publiko-motaren arabera

2.2.3.2.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 193)



Helduei zuzendutako antzerkian dago prezio-alderik handiena gizonen eta emakumeen artean, 6 € aldea sarreraren batez besteko prezioaren arabera. Alde hori 3 €-ra jaisten da haurrentzako emanaldietan.

2.2.3.2.2. Emanaldien prezioaren mediana, publiko motaren arabera (N 193)




Mediana aztertzean, berriz, alde nabarmen hori zerbait murrizten da: **4 € helduentzat** eta **2 € haurrentzat**.

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza


2.2.3.3. Doako emanaldiak

2.2.3.3.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 252)



Doako emanaldien ehunekoa ia 7 puntu portzentual handiagoa da emakumeek sortutako antzezlanen kasuan, gizonek sortutakoen aldean; nolahi ere, egiletza mistoa baino txikiagoa da.

2.2.3.3.2. Banaketa doakotasunaren arabera (N 242)




Ordainpeko emanaldi gehienak gizon batek edo gehiagok sortutako antzezlanenak dira. Aldiz, doako emanaldiei dagokienez, egiletza misto gehiago dago.

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza


2.2.3.4. Doako emanaldiak eta publiko-motak

2.2.3.4.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 59)



Gizonezko zein emakumezko egileen doako emanaldiak helduentzat dira (10etik 6). Aldiz, egiletza mistoa den antzezlanen kasuan, emanaldiak gehienbat haurrentzat dira doan.

2.2.3.4.2. Banaketa publiko-motaren arabera (N 59)




Helduei zuzendutako doako emanaldien egiletza emakumeek osatua da gehienbat banaketa orokorraren aldean (% 25 eta % 19 hurrenez hurren), baina hori ez da gertatzen egileak gizonak diren kasuan.

OHARRA: datuak kontu handiz irakurri behar dira kategoria bakoitzean oso efektibo gutxi bildu direlako.

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza


2.2.4. Asteko eguna

2.2.4.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 242)



Emanaldi gehienak asteburuan antzezten dira, egilearen sexua edozein dela ere.

2.2.4.2. Banaketa asteko egunaren arabera (N 242)




Azpimarratzekoa da emakumeek sortutako obrek presentzia pixka bat txikiagoa dutela astegunetan, egileen banaketa orokorrarekin alderatuta (egiletza guztien % 19 emakumeak dira).

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza


2.2.5. Orduategia

2.2.5.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 242)



Emanaldien ordu-banaketa **nahiko antzekoa da egiletza mistoetan**, gizonena eta emakumeena, eta ia emanaldi guztiak arratsaldeko orduategian egiten dira (batez ere emakumeenak).

2.2.5.2. Banaketa orduategiaren arabera (N 242)




Arratsaldeko tartea **egileen banaketa orokorrarekiko proportzionala da**. Hala ere, goizez emakume egilerik ez dagoela nabarmentzen da, eta gaez, berriz, emakume egileen kopuruak gora egin duela eta gizonen kopuruak behera.

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza


2.2.6. Hizkuntza

2.2.6.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 242)



Hizkuntzaren banaketari dagokionez, sexuen arabera, antzerki-emanaldietan euskara askoz gehiago agertzen da egileak emakumeak edo mistoak direnean, gizonak direnean baino.

2.2.6.2. Banaketa hizkuntzaren arabera (N 242)




Gaztelaniazko 4 emanalditik 3 baino gehiagok **gizonak** dituzte egiletzan; euskarazko antzezlanen kasuan, portzentaje hori banaketa orokorrean dagokiona baino 10 puntu txikiagoa da.


2.2. Programazioaren analisia: Egiletza

2.2.7. Lurralde Historikoa

2.2.7.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 242)



2.2.7.2. Banaketa lurralde historikoaren arabera (N 242)




Araba da emanaldien **ehuneko txikiena** duen lurralde historikoa **emakume bat edo gehiago dituen egilezarekin, eta gizonak soilik direnen presentzia handiagoarekin.**

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza


2.2.8. Kanpoko/barruko esparrua

2.2.8.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 242)



Barnea antzerkirako espazio klasikoa da. Hala ere, **bi** sexuetako kideek egindako obrek eta ikuskizunek presentzia handiagoa dute kanpoaldean egiten direnean.

2.2.8.2. Banaketa esparru-motaren arabera (N 242)




Barneko espazioetako emanaldietan egileen banaketa egileen osaeraren araberako banaketa orokorrarekiko nahiko proportzionala da. Kanpoaldean, aldiz, egiletza mistoa duten obrek presentzia handiagoa dute.

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza


2.2.9. Esparruaren edukiera

2.2.9.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 210)



Gizonek sinatutako obren % 41 espazio handietan antzezten diren bitartean, **emakumeen egiletza duten obren % 24 soilik ikus daitezke 500 eserlekutik gorako edukiera duten esparruetan.**

2.2.9.2. Banaketa esparruaren tamainaren arabera (N 210)



Esparru handietako antzerki-emanaldien hiru laurdenak soilik **gizonezkoek egindako obrak eta ikuskizunak dira**, banaketa orokorrean baino gehiago. Emakume sortzaileek presentzia handiagoa dute esparru txikietan.

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza

2.2.10. Antzerki-generoa


2.2.10.1 Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 242)

	Mistoa	Gizonak Bakarrik	Emakumeak bakarrik
Zirkua	% 45,95	% 5,03	% 6,52
Magia		% 1,26	
Musikala	% 27,03	% 15,09	% 4,35
Beste batzuk	% 8,11	% 3,14	% 2,17
Kaleko antzerkia		% 4,40	% 4,35
Testu antzerkia	% 18,92	% 70,44	% 80,43
Antzerki lirikoa		% 0,63	% 2,17

Testu-antzerkia da generorik ohikoena EAEko programazioan, eta, beraz, **antzerkigileek genero horretan dihardute gehienbat.**

Hala ere, **bi sexuetako egiletza mistoan** ohikoena **zirkua da**, sorkuntzen % 46, alegia.

2.2.10.2. Banaketa antzerki-generoaren arabera (N 242)




Egileen sexuaren **banaketa oso desberdina** da antzerki-genero guztietan.

Magian emakume sortzailerik ez dagoela eta musikalen generoan gutxieneko presentzia duela nabarmentzen da.

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza


2.2.11. Publiko-mota

2.2.11.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 242)



Egiletza mistoko antzezlanak hurrei eta familiei zuzenduta daude gehienbat. Emakumeek eta, batez ere, gizonek bakarrik sinatutako antzezlanak, berriz, **helduentzat** dira.

2.2.11.2. Banaketa publiko-motaren arabera (N 242)




Helduentzako antzezlanek sexu bakarrez osatutako egiletzak dituzte, gizonezkoen gehiengo argiarekin. Haurrentzako antzezlanen egiletzaren banaketa, aldiz, zertxobait desberdina da, eta egiletza mistoak pisu handiagoa du.

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza


2.2.12. Talde-mota

2.2.12.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 242)



EAE antzeztutako obren **egile gehienak indibidualak dira** (% 74) baina **gizonen egiletza indibidualak emakumeenak baino 6 puntu portzentual ohikoagoak dira**. Hamar egile mistotik 6 bikoteenak dira.

2.2.13.2. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 242)




Banaketa orokorraren aldean, **egile maskulinoak ordezkari handiagoa dute egiletza indibidualeko antzezlanean** (% 66 eta % 79 hurrenez hurren).

2.2. Programazioaren analisia: Egiletza


2.2.13. Egiletzaren jatorria

2.2.13.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 238)



Egiletza osoa edo zati bat emakumeek osatzen duten obretan, obra gehienak EAEkoak dira, eta egile maskulinoak, berriz, jatorri anitzagokoak dira, % 52 Euskaditik kanpokoak.

2.2.13.2. Banaketa jatorriaren arabera (N 238)



Egileen jatorriaren azterketari dagokionez, **Estatuko gainerako tokietatik eta atzerritik datozen antzezlanen egiletzan gizonetzkoen presentzia handiagoa** dela ikus daiteke.

2. Programazioaren analisia

2.1. Interpretazioaren analisia

2.2. Egiletzaren analisia

2.3. Zuzendaritzaren analisia

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza

2.3.1. Antzerki-emanaldien zuzendaritza

2.3.1. Emakumeen eta gizonen presentzia (N 309*)

% 36,3

EMAKUMEAK

% 63,7

GIZONAK

Gizonek EAEn 2023an antzeztutako obren zuzendaritzen ia bi herenetan parte hartzen dute.


* Hautatutako laginean aztertutako pertsonen kopurua

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza

2.3.2. Zuzendaritzaren osaera

2.3.2.1. Zuzendaritzaren osaera (N 251)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



2023an antzeztutako antzerki-emanaldien erdiak baino gehiagok **gizonek bakarrik osatutako zuzendaritza izan zuten.**

Aitzitik, **emakumeek Euskadin antzeztutako hiru obratik 1 zuzendu zuten esklusiboki.**


2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza

2.3.3. Prezioa eta doakotasun-datuak

2.3.3.1. Batez besteko prezioa eta mediana

2.3.3.1.1. Antzerki-emanaldien batez besteko prezioa, taldearen osaeraren arabera (N 179)


■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



Emanaldien % 71 ordainpekoak izan dira. **Prezioa antzekoa da, bai gizonek bakarrik zuzentzen dituzten obretarako bai emakumeek bakarrik zuzentzen dituztenetarako, 13 eta 14 € bitartean, eta zuzendaritza mistokoak baino zertxobait gehiago.**

2.3.3.1.2. Antzerki-emanaldien prezioaren mediana, taldearen osaeraren arabera (N 179)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik




Medianak, ordea, **3 €-ko aldea** erakusten digu gizonek zuzendutako lanen (garestienak) eta emakumeek zuzendutakoen artean.

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza


2.3.3.2. Batez besteko prezioa eta mediana publiko-motaren arabera

2.3.3.2.1. Emanaldien batez besteko prezioa publiko-motaren arabera (N 179)



Zuzendaritza maskulinoa edo femeninoa duten emanaldien arteko prezio-alde handienak pertsona helduei zuzendutako emanaldietan izaten dira (1,5 € gehiago gizonek bakarrik zuzentzen dituztenean). Haurrentzako antzerkiaren kasuan, sarreren prezioa oso antzekoa da gizonek edo emakumeek zuzentzen dituztenetan.

2.3.3.2.1. Emanaldien prezioaren mediana publiko-motaren arabera (N 179)




Medianak **prezio zerbait handiagoa erakusten du emakumeek bakarrik zuzendutako antzezlanetan, haurrentzako obren kasuan**. Helduentzako emanaldietan, gizonen zuzendaritzako lanen prezioa 2,5 €-tik gorakoa da emakumeena baino, nahiz eta mistoak izan garestienak.

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza


2.3.3.3. Doako emanaldiak

2.3.3.3.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 251)



Zuzendaritza **mistoe**k **doako emanaldien ehuneko handiagoa** dute sexu bateko edo besteko pertsonen osatutako enek baino.

2.3.3.3.1. Banaketa doakotasunaren arabera (N 251)




Ordainpeko/doako emanaldien banaketa **nahiko proportzionala** da (% 34) emakume zuzendarien presentziaren banaketa **orokorreakiko**, eta hauek presentzia handiagoa dute ordainpeko emanaldietan doakoetan baino.

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza


2.3.3.4. Doako emanaldiak eta publiko-motak

2.3.3.4.1 Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 72)



Bi sexuek osatutako zuzendaritza duten doako obra gehienak haurrei zuzenduta daude. Hala ere, **sexu bakarreko zuzendaritzek helduentzako doako obra gehiago dituzte**, batez ere gizonek zuzendutakoak (emakumeek baino 9 puntu gehiago).

2.3.3.4.2. Banaketa publiko-motaren arabera (N 72)




Gizonek **helduentzako doako obren ia bi heren** zuzentzen dituzte. Haurrentzako doako obren kasuan, ordea, zuzendaritza maskulinoak behera egin du eta mistoak gora.

OHARRA: datuak kontu handiz irakurri behar dira, kategoria bakoitzean oso langile gutxi bildu direlako.


2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza

2.3.4. Asteko eguna

2.3.4.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 251)



2.3.4.2. Banaketa asteko egunaren arabera (N 251)




Emanaldiak batez ere asteburuan antzeten dira, zuzendaritzaren sexua edozein dela ere, nahiz eta zuzendaritza mistokoak baino neurri handiagoan gizonek edo emakumeek bakarrik zuzendutakoak izan.

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza


2.3.5. Orduategia

2.3.5.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 251)



Antzerki-emanaldi gehienak **arratsaldez** izaten dira, eta zerbait gehiago zuzendaritza emakumeena denean.

2.3.5.2. Banaketa orduategiaren arabera (N 251)




Goiza eta, bereziki, **gaua** dira gizonen zuzendaritzak protagonismoa hartzen duen eguneko tarteak.

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza


2.3.6. Hizkuntza

2.3.6.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera
(N 251)



Gizonek zuzendutako antzezlanean ia bi heren gaztelaniaz dira, eta % 22 euskaraz. Emakumeek zuzendutako emanaldien kasuan, ordea, horien **erdiak baino gehiago euskaraz** dira.

2.3.6.2. Banaketa hizkuntzaren arabera
(N 251)




Antzezlanean zuzendaritzan emakumeek duten presentzia erabakigarria da euskarazko antzezlanean sortzeko. Ildo horretan, nabarmendu behar da euskaraz antzeztutako emanaldien % 55 emakumeek zuzentzen dituztela.

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza


2.3.7. Lurralde Historikoa

2.3.7.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 251)



Zuzendaritza gizonek osatua da nagusiki Bizkaian (% 58); emakumeek, berriz, orekari eusten diote lurralde horren eta Gipuzkoakoaren artean, eta ez daude oso presente Araban.

2.3.7.2. Banaketa lurralde historikoaren arabera (N 251)




Emakumeek Gipuzkoan programatutako antzerki-emanaldien erdia zuzentzen dute, banaketa orokorraren arabera egokituko litzaiekeenaren oso gaineratik, eta gizonek presentzia handiagoa dute Araban.

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza


2.3.8. Barruko/kanpoko esparrua

2.3.8.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 251)



Barnea antzerkirako espazio klasikoa da. Hala ere, zuzendaritza **bi sexuetoako kideek osatzen duten obrek eta ikuskizunek presentzia handiagoa dute kanpoaldeko espazioetan**, gizonek bakarrik zuzentzen dituzten obrekin alderatuta, eta, batez ere, emakumeek bakarrik zuzentzen dituztenekin alderatuta (obren zuzendaritzetatik 10etik 1 bakarrik da kanpoaldean).

2.3.8.2. Banaketa esparru-motaren arabera (N 251)




Barne-espazioetako emanaldien zuzendaritzaren banaketa zuzendaritzen sexuaren araberako **banaketa orokorrarekiko proportzionala** da. **Kanpoaldekoetan**, aldiz, zuzendaritza **mistoko** obrak gehiago dira, eta gizonena eta, batez ere, emakumeena soilik den zuzendaritzaren presentzia jaisten da.

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza


2.3.9. Esparruaren edukiera

2.3.9.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 206)



Emakumeek zuzendutako 10 obratik ia 7 500 eserlekitik beherako edukiera duten esparruetan antzesten dira; gizonen kasuan, 10etik 4 baino gehiago esparru handietan.

2.3.9.2. Banaketa esparruaren tamainaren arabera (N 206)



500 eserlekitik gorako edukiera duten esparruetan, antzetzutako emanaldien % 64 gizonek bakarrik zuzenduak dira. Espazio txikienetan, aldiz, emakume zuzendariek presentzia handiagoa dute; 13 puntu portzentualeraino murrizten da gizonekiko aldea.

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza


2.3.10. Antzerki-generoa

2.3.10.1 Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 251)

	Mistoa	Gizonak bakarrik	Emakumeak bakarrik
Zirkua	% 40,91	% 11,19	% 4,65
Magia			
Musikala	% 9,09	% 15,38	% 15,12
Beste batzuk	% 18,18	% 2,10	% 1,16
Kaleko antzerkia		% 4,90	% 5,81
Testu antzerkia	% 31,82	% 65,73	% 70,93
Antzerki lirikoa		% 0,70	% 2,33

Testu-antzerkia da generorik ohikoena EAEko programazioan, eta, beraz, **gizonen eta emakumeen zuzendaritza** eksklusiboa bertan biltzen da. Hala ere, **bi sexu**etako pertsonen osatutako zuzendaritzetan, generorik ohikoena **zirkua da**, irudikapenen % 41ekin.

2.3.10.2. Banaketa antzerki-generoaren arabera (N 251)




Antzerki-genero desberdinetako egileen sexuaren araberako banaketa oso desberdina da. **Kale-antzerkiaren eta testu-antzerkiaren kasuan, 10etik 4 emakumeek zuzenduak dira, eta zirkuko zuzendaritzan, berriz, ia ez dute presentziarik.**

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza


2.3.11. Publiko-mota

2.3.11.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 251)



Sexu bakarreko pertsona batek edo gehiagok zuzendutako lanak **publiko helduari** zuzenduta daude, apur bat gehiago emakumeek bakarrik zuzendutakoak gizonek bakarrik zuzendutakoak baino. Zuzendaritza mistoa duten obrak gehiago zuzentzen zaizkie hurrei helduei baino.

2.3.11.2. Banaketa publiko-motaren arabera (N 251)




Emakumeena soilik den zuzendaritza, banaketa orokorrak erakusten duena baino **zertxobait gutxiago agertzen da haurrentzako obren zuzendaritzan.**

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza


2.3.12. Talde-mota

2.3.12.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 251)



Zuzendaritza, oro har, **banakako lana** da. Emakumeek eta gizonek bakarka zuzentzen dute nagusiki, baina **gizonak emakumeak baino gehiagotan elkartzen dira**, bai bikotean, bai taldean.

2.3.12.2. Banaketa talde-motaren arabera (N 251)




Emakumeek presentzia handiagoa dute banakako zuzendaritzan; talde-zuzendaritzan, berriz, gizonen presentzia banaketa orokorrean dagokiona baino handiagoa da.

2.3. Programazioaren analisia: Zuzendaritza


2.3.13. Zuzendaritzaren jatorria

2.3.14.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 248)



Zuzendaritza osoa edo zati bat emakumeena den obretan, obra gehienak EAEkoak dira, eta gizonetzko egileak, berriz, jatorri anitzagokoak dira, % 45 Euskaditik kanpokoak.

2.3.14.2. Banaketa jatorriaren arabera (N 248)



Estatuko gainerako tokietatik eta atzerritik datozen obren egiletzan gizonen presentzia handiagoa da EAEn baino, emakumeek zuzendutako obretan ez bezala.

3. Sorkuntzaren analisia

Atal honetan 2023an EAEn ezarritako taldeek estreinatutako antzezlanak aztertzen dira.

3. Sorkuntzaren analisia

3.1. Interpretazioaren analisia

3.2. Egiletzaren analisia

3.3. Zuzendaritzaren analisia

3.1. Sorkuntzaren analisia: Interpretazioa

3.1.1. Antzezleak

3.1.1. Emakumeen eta gizonen presentzia (N 466*)

% 54,9

EMAKUMEA

% 45,1

GIZONAK

Emakumeek gizonek baino presentzia handiagoa dute interpretazioan EAEn ezarritako taldeek 2023an sortutako obretan.


* Hautatutako laginean aztertutako pertsonen kopurua

3.1. Sorkuntzaren analisia: Interpretazioa

3.1.2. Antzerki-taldeen osaera


3.1.2.1. Antzerki-taldeen osaera
(N 120)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik



3.1.2.2. Antzerki-talde mistoen osaera (N 67)

■ Emakumeak ■ Gizonak




Taldekatzeko modu nagusia talde mistoak dira (% 56). **Emakumeek eta gizonek antzeko presentzia dute** (% 21-23); hala ere, emakumeen presentzia handiagoa da talde mistoetan (% 57).

3.1. Sorkuntzaren analisia: Interpretazioa


3.1.3. Publiko-mota

3.1.3.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera
(N 120)



Emakume zein gizonek helduentzako antzerkian antzezten dute gehienbat.

3.1.3.2. Banaketa publiko-motaren arabera
(N 120)




Obrak xede duen publiko-motak ez dio eragiten sexuen araberako ordezkartzari. Emakumeek eta gizonek antzeko datuak biltzen dituzte banaketa orokorrarekiko.


3.1. Sorkuntzaren analisia: Interpretazioa

3.1.4. Hizkuntza

3.1.4.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 120)



3.1.4.2. Banaketa hizkuntzaren arabera (N 120)



Emakumeek gehiago antzezten dituzte euskarazko obrak gizonek baino, bi azterlanetan erakusten den bezala.

3. Sorkuntzaren analisia

3.1. Interpretazioaren analisia

3.2. Egiletzaren analisia

3.3. Zuzendaritzaren analisia

3.2. Sorkuntzaren analisia: Egiletza

3.2.1. Egiletza

3.2.1. Emakumeen eta gizonen presentzia (N 153*)

% 39,9

EMAKUMEA

% 60,1

GIZONAK

EAE 2023an sortutako obren egiletzan emakumeen presentzia gizonena baino txikiagoa da, 20 puntu portzentualeko aldearekin.


* Hautatutako laginean aztertutako pertsonen kopurua

3.2. Sorkuntzaren analisia: Egiletza

3.2.2. Egiletzaren osaera

3.2.2. Egiletzaren osaera (N 117)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik




EAE n sortutako obren erdia baino gehiagoren egiletza gizonak soilik osatua da, eta % 27, berriz, emakumeek.

3.2. Sorkuntzaren analisia: Egiletza


3.2.3. Publiko-mota

3.2.3.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera
(N 112)



Emakumeek obra gehiago sortzen dituzte haurrentzat **gizonek baino**, nahiz eta egiletza mistoa izan publiko-mota horri gehien zuzentzen zaiona.

3.2.3.2. Banaketa publiko-motaren arabera
(N 112)




Emakumeen presentzia haurrentzako obren egiletzan handiagoa da egiletzaren banaketa orokorraren aldean.


3.2. Sorkuntzaren analisia: Egiletza

3.2.4. Hizkuntza

3.2.4.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 112)



3.2.4.2. Banaketa hizkuntzaren arabera (N 112)



Emakumeek gizonek baino **euskarazko antzezlan gehiago** sortu dituzte 2023an EAEn, nahiz eta talde mistoak izan euskaraz gehien sortu dutenak.

* Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioan

3. Sorkuntzaren analisia

3.1. Interpretazioaren analisia

3.2. Egiletzaren analisia

3.3. Zuzendaritzaren analisia

3.3. Sorkuntzaren analisia: Zuzendaritza

3.3.1. Zuzendaritza

3.3.1. Emakumeen eta gizonen presentzia (N 93*)

% 47,9

EMAKUMEA

% 52,1

GIZONAK

Antzerki-zuzendaritzan gizonen eta emakumeen presentzia parekidea da EAEn 2023an sortutako obretan, eta 4 puntu portzentualeko aldea baino ez dago bi sexuen artean.


* Hautatutako laginean aztertutako pertsonen kopurua

3.3. Sorkuntzaren analisia: Zuzendaritza

3.3.2. Zuzendaritzaren osaera

3.3.2. Zuzendaritzaren osaera (N 93)

■ Mistoa ■ Gizonak bakarrik ■ Emakumeak bakarrik




Gizonen eta emakumeen presentzia, taldearen arabera, **oso antzekoa da** EAEn 2023an sortutako obren zuzendaritzan.


3.3. Sorkuntzaren analisia: Zuzendaritza

3.3.3. Publiko-mota

3.3.3.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 93)



3.3.3.2. Banaketa publiko-motaren arabera (N 93)




Zuzendaritza mistoa ohikoagoa da haurrentzako edo familientzako obretan. Gizonek bakarrik edo emakumeek bakarrik zuzenduak dira, eta batez ere helduentzat, nahiz eta helduentzako obren zuzendaritzan emakumeak gehiago izan gizonen aldean.


3.3. Sorkuntzaren analisia: Zuzendaritza

3.3.4. Hizkuntza

3.3.4.1. Banaketa taldearen osaeraren arabera (N 93)



3.3.4.2. Banaketa hizkuntzaren arabera (N 93)



Emakumeek gehiago zuzentzen dituzte euskarazko obrak gizonek baino. Gainera, euskarazko obren erdia baino gehiago emakumeek zuzendu zituzten, baita gaztelaniaz zein euskaraz zeuden obren bi heren ere.

4. Alderaketak


4. Alderaketak

4.1. Aldeak emanaldien eta sorkuntzen artean

EAEen programatutako emanaldiak eta sortutako obrak alderatzean, ikusten dugu **parekotasun handiagoa dagoela EAEko sorkuntza-prozesuetan**, batez ere zuzendaritzan.

Gainera, EAEen jatorria duten emanaldi programatuak eta bertan ekoiztutako obrak alderatzen baditugu, **programazioan emakumeen presentziak behera egin duela ikusiko dugu**.

4.1.1. Banaketa orokorra taldeen sexuaren arabera



* EAEen programatutako antzerki-emanaldiak; haien ekoizpenak ere EAEen du jatorria


4. Alderaketak

4.2. Emanaldien bilakaera: 2017 eta 2023

4.2.1. Emakumeek eta gizonek antzerki-emanaldian duten presentziaren bilakaera (2017-2023)

		2017	2023	
Interpretazioa	Emakumeak	% 48,00	% 47,00	=
	Gizonak	% 52,00	% 53,00	=
Egiletza	Emakumeak	% 32,00	% 31,00	=
	Gizonak	% 68,00	% 69,00	=
Zuzendaritza	Emakumeak	% 32,00	% 36,00	+
	Gizonak	% 68,00	% 64,00	-

4.2.2. Taldeen banaketaren bilakaera sexuaren arabera (2017-2023)



Emakumeek eta gizonek antzerki-jardueretan duten presentziaren bilakaerak **alde txikia erakusten du 2017 eta 2023 artean**.

Programazioaren kasuan, **zuzendaritza** da parekotasunerako joera txiki bat erakusten duen eremu bakarra 2023an; emakumeen presentziak **4 puntu portzentualeko** hazkundera izan du.

Emakumeek bakarrik osatutako taldeei dagokienez, emakumeen presentzia 6 punturaino igo da 2017arekin alderatuta, zuzendaritzaren eremuan. Interpretazioan, ordea, emakumeek presentzia galdu dute 2023an, 2017an baino ehuneko 4 puntu gutxiagorekin.


4. Alderaketak

4.3. Sorkuntzen bilakaera: 2017 eta 2023

4.3.1. Emakumeek eta gizonek antzerki-sorkuntzan duten presentziaren bilakaera (2017-2023)

		2017	2023	
Interpretazioa	Emakumeak	% 61,00	% 55,00	-
	Gizonak	% 39,00	% 45,00	+
Egiletza	Emakumeak	% 39,00	% 40,00	=
	Gizonak	% 61,00	% 60,00	=
Zuzendaritza	Emakumeak	% 38,00	% 48,00	+
	Gizonak	% 62,00	% 52,00	-

4.3.2. Taldeen banaketaren bilakaera sexuaren arabera (2017-2023)



Sorkuntzei dagokienez, parekotasun handiagoa dago. Hala ere, 2023an, emakumeek presentzia galdu zuten interpretazioan (6 puntura arte), 2017arekin alderatuta. Baina zuzendaritzan aldaketa nabarmena gertatu da: emakumeen presentzia 10 puntu portzentual igo da.